



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

UDALAREN ANTOLAKETA (2011-2015 legealdia)

2011ko maiatzaren 22an hauteskundeak ospatu ondoren Altzoko Udala honela antolatu da:

1) Altzoko Udala ondorengo zazpi kide hauek osatzen dute:

- | | | |
|----------------|----------------------------|------------------------|
| - Alkatea: | Miren Balerdi Amondarain. | (Bildu-EA-Alternatiba) |
| - Zinegotziak: | Aitzol Galarraga Lizarazu | “ |
| | Kepa Uzkudun Etxenagusia | “ |
| | Jasone Armendariz Nazabal | “ |
| | Maria Luisa Franco Leiza | “ |
| | Ana Maria Olazar Aizpurua | “ |
| | Eneko Aguirrezabal Arrieta | “ |

2) Alkateordeak hauek dira:

- | | |
|--------------------------|---------------------------|
| - Lehenengo Alkateordea: | Aitzol Galarraga Lizarazu |
| - Bigarren Alkateordea: | Kepa Uzkudun Etxenagusia |

3) Diruzaina:

- Ana Maria Olazar Aizpurua

4) Batzordeak eta batzordeburuak:

<u>Batzordeak:</u>	<u>Batzordeburua.</u>
1) Hirigintza eta obrak.....	Miren Balerdi Amondarain
2) Nekazaritza eta Industria.....	Kepa Uzkudun Etxenagusia
3) Zerbitzuak eta Ingurugiroa.....	M ^a Luisa Franco Leiza
4) Ongizatea, Osasuna, Pertsonala, Ogasuna	Ana M ^a Olazar Aizpurua
5) Festak, Gaztedia eta Turismoa.....	Aitzol Galarraga Lizarazu
6) Kultura eta Hezkuntza.....	Jasone Armendariz Nazabal
7) Kirola eta Euskara.....	Eneko Aguirrezabal Arrieta

5) Plenoak eta Batzorde-bilerak:

Hilero Pleno bat edo Ohiko Osoko Bilkura bat egingo da. Pleno hauek hilaren lehenengo asteartean, arratsaldeko 8:30etan egingo dira, gai zerrenda, deialdia eta aktarekin.

Gainontzeko asteartean, arratsaldeko 8:30etan, Batzorde-bilera irekiak egingo dira, hau da, bilera hauetan batzordeburu bakoitzak bere gaiak beste zinegotziei aurkeztuko dizkie eta irekiak izango dira, Alkate eta zinegotzietz gain, herri erakundeetako ordezkariak edota herritarrak ere parte hartu ahal izango dutelako beren eskaerak eta proposamenak aurkeztuz. Bilera hauek gai zerrenda, deialdi eta akta ofizialik gabe egingo dira.

6) Udal idazkaritza:

Astelehenetik ostiralera eguerdiko 13etatik 15etara irekita egongo da.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

- 7) **Hirigintza gaiak eta arkitektoa:** Hirigintzako gaiak, asteazken eguerdian aztertuko dira Udal arkitektoarekin, eguerdiko 11:30etatik 13:30ak arte.
- 8) **Ongizatea eta Gizarte Laguntzailea:** astelehenetan 9:00etatik 11:30etara administrariarekin eta ostiraletan, gizarte laguntzailearekin, 9:00etatik 13:00etara aztertuko dira.
- 9) **Liburutegia eta haur gela:** astelehenetik ostiralera, eskola garaian, arratsaldeko 4:30etatik 6:30etara irekita egoten da.
- 10) **KZgunea:** udal idazkaritza eta liburutegia irekita daudenean KZgunea ere irekita dago.

Informazio hau zuentzat baliokoa izango delakoan luzatzen dizuet agur bero batekin batera.

Altzon, 2011ko ekainaren 29an.
Alkateak.
Miren Balerdi Amondarain.